



Prensa oharra

**Elikagaien Bankuetarako beste bilketa kanpaina bat
azaroaren 27an eta 28an**

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 2.300
TONA JANARI BAINO GEHIAGO EMAN
DITUZTE AURTEN**

- Horretatik 2.000 tona baino gehiago EROSKI 'Ez alferrik galdu' programaren barnean emandako janaria da; horrela, bermatzen da dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk
- Elikagaien Bankuen aldeko azken bilketa kanpaina, ekainean, EROSKI 284.774 kilo janari bildu zituen
- EROSKI eta Elikagaien Bankuek orain dela hemeretzi urte egin zuten elkartasuna erakusteko lehen 'Kilo Operazioa', 1996an

Elorrio, 2015eko azaroaren 23a.- [EROSKI](#) eta haren bezeroek 2.300 tona janari baino gehiago eman dituzte aurten, behar gehien duten kolektiboentzat. Kopuru horretatik, 2.000 tona inguru EROSKI eman ditu 'Ez alferrik galdu' programaren barnean; programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk eta denda bakoitzaren hurbilean diren gizarte erakundeei emango zaiela. Gainerako 284.744 kiloak Elikagaien Bankuen aldeko elkartasun bilketaren azken kanpaina bildu ziren, ekainean, EROSKIren dendetan, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioaren laguntzarekin.

'Ez alferrik galdu' EROSKIren denda guztietan

EROSKIren 'Ez alferrik galdu' programak helburu du janaria ematea behar gehien duten kolektiboek eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnei. EROSKI helburu sozialengatik ematen ditu elikagai horiek; neurri handian, saltokietatik kentzen dituzten produktuek akatsen bat izaten dute bilkarian eta ezin izaten dira bere horretan saldu, kontsumitzeko baldintza ezin hobeetan egonagatik; beste batzuetan, berriz, iraungitze data hurbil izaten dute, eta horregatik kentzen dira salmentatik, bezeroei freskotasun gorena eskaintzeko konpromisoari eusteagatik.

"Elkartasuna gure kooperatibaren ezaugarria da. Ontzian kolpeak dituzten edo bestelako arrazoiengatik salmentatik kentzen diren elikagaiak baina jateko egokiak direnak ematen ditugu; produktu freskoak ere ematen ditugu; hori dela eta, emandako produktuen elikadura segurtasuna bermatzeko, lotura estuan ari gara

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)



Prensa oharra

Elikagaien Bankuarekin. Hain zuzen ere, aurrendariak izan gara gure saltoki sare osoan janaririk alferrik ez galtzen", esan du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak.

EROSKI bat egin du hurrengo Bilketa Handiarekin

EROSKI eta Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak ([FESBAL](#)) beharra dutenentzat janaria biltzeko beste kanpaina bat antolatu dute ostiral eta larunbat honetarako, azaroaren 27rako eta 28rako.

"Bilketa Handia Espainia guztiko saltokietan egiten da, 'Goseak hor jarraitzen du: elikagairik gabe ez dago bizitzarik' lelopean. Espero dugu kontsumitzaileek beste behin erakustea oso kontzientziatuta eta sentsibilizatuta daudela krisiaren gogortasunarekin. EROSKI kook ere konpromisoa erakutsi nahi dugu, eta, kontsumitzaileek emandako kiloen arabera, hainbesteko bat gehituko dugu", azaldu du Alejandro Martinez Berriochoak.

"2015eko Elikagaien Bilketa Handi honetan, haurren pobrezian eragin behar dugu; izan ere, hurrek duintasunez bizi eta hazi behar dute, eta janaririk gabe ez dago ez osasunik ez heziketarik. Gizarte baten handitasuna nonbait ikustekotan, behar handiena dutenak edo pobrezia beste lagunik ez dutenak tratatzeko moduan ikusten da. Pobre denak ez du eskatzen duintasunez bizitzeko ezinbestekoa dena baino gehiago. Horregatik, Bilketa Handi honetan, inork ezin du ezaxolarena egin gure herrialdeko desorekak ikusita, eta emailei dei egiten diegu eskuzabal eta elkartasunez joka dezaten", esan du Nicolas Maria Palacios Caberok, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioko presidentea.

Hemeretzi urte elkarlanean

EROSKI hemeretzi urte daramatza Elikagaien Bankuarekin lanean. Egindako lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, Urrezko Galburuaren sariarekin; hain zuzen, hori da erakundearen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diena.

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko. Hala, urte horretan bertan hasi zen 'Kilo Operazioa', elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)



Prentsa oharra

Gero, EROSKI martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute hemeretzi urteren ondoren 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Berrirago, krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKI eta Elikagaien Bankuak elikagai freskoetara zabaldu zuten programa hau; horretarako, beharrezkoa izan zen donazio logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzeko direla hartzaileengana.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)